



# Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzeko programa.

## III. ERANSKINA : JARRAIPENA

Urtea :2018 | Ekonomia Sustapena

### DESKRIBAPENA

Enpresa jardueraren jarraipena eta sustraitzea sustatzea testuinguru egoki bat sortuz eta garatuz, enpresa transmisioa ahalbidetzeko tresnak eta esparruak sortuko dituen, eta enpresak transmititzeko formulak babestu eta euskarria emango diena.

### ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan errotutako enpresak eta enpresa elkarteak;
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak; eta,
- c) Gipuzkoan kokatutako unibertsitate publiko eta pribatuen zentroak, sailak, atalak, institutuak eta bestelako ikerketa unitateak.

### DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diru laguntza jaso ahal izango dute ikerketak, analisiak eta azterketak, proiektu esperimentalekin batera, honako proiektu hauek garatzeko:

- Informazioa sortzea eta lortzea, enpresa jarraipenaren eta transmisioaren esparruan erabakiak hobeto hartzea ahalbidetuko duena.
- Testuinguru egokiak sortzea, lurralde eragileak, eta eragile ekonomikoak eta sozialak barneratuko dituen.
- Prozesuak, sistematikak, tresnak eta laguntzak garatzea eta abian jartzea enpresen transmisiorako ingurune egokiak sortzeko.
- Gobernu korporatiboko egiturak eta prozesuak sortzea eta horiek trebatzea. Enpresa transmisioan parte hartzen duten pertsonentzako sentsibilizazio, trebakuntza eta ahalduzko dinamikak.
- Esperientzia pilotu eraldatzaileak abian jartzea.



- Sentsibilizatzea, ikusaraztea eta gizarte baliaraztea, enpresa jardueraren jarraipenari eta transmisioari dagokionez.

## DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian)

## DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru laguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira, salbu eta hainbat proiektu -ikerketak, analisiak eta azterketak, laguntza tresnak sortzea, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, dinamikak ezartzea...horietan % 100 izango baitira.

## EMATEKO PROZEDURA

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

## BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan nazionala, izan Europar Batasuneko edo izan nazioartekoa, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekkin.

## BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2018ko ekainaren 26an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **diru laguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**

Proiektuen exekuzio data: **2019ko maitzaren 24a**

Proiektuak justifikatzeko data: **2019ko ekainaren 24a**

## ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasangarritasuna eta lankidetzaren sustatzeko programa: III.ERANSKINA - Enpresa jardueraren jarraipena sustatu.

## ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak  
<http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/jarraipena>
- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa  
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Landa Ingurune eta  
Lurralde Orekako Departamentua

## EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENeko ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

[sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus)